

Ugarteko musikariak

Lazaro Arandia Murgiondo

- Ugarten jaio zen, 1905/02/24an.
- Ugarten hil zen, 1983/01/9an.
- Jazinto eta Doloresen semea, 14 senide izan ziren. Aitak alpargatak egiten zituen, zola ere bai.
- Okina, barberua, autobus gidaria eta organista zen.
- Ikasketa orokorrak Ugarteko eskolan egin zituen, 14 urte arte.
- Musika-ikasketak Tolosan egin zituen, Mokoroa maisuarekin.
- 66 urte inguru aritu zen Ugarteko organista-lanak egiten.

Maria Dolores Arandia Murgiondo

- Ugarten jaio zen, 1916/09/28an.
- Ugarten hil zen, 2005/08/12an.
- Ikasketa arruntak Ugarteko eskolan egin zituen, 14 urte arte.
- Musika-ikasketak Tolosako Mokoroa maisuarekin egin zituen.
- Etxean pianoa zuten eta han aritzen zen jotzen, afizio handia zuen.
- Hurrei musika eta kantak irakasten aritzen zen.

Jose Zelaia Agirrezabala

- Ugarten jaio zen, 1945/08/04an.
- Lanbidea: hortz-protesi-gilea.
- Ignazio Mokoroarekin ikasi zituen solfeoa eta pianoa, eta Juan Mari Imazen etxean praktikatzen zuen pianoa.
- Lazaro hil ondoren, M^a Dolores aritu zen organoa jotzen, baina denbora gutxian, eta 4 urtez egon zen Ugarte organistarik gabe. Joseri eskatu zioten jotzeko, eta berriro, lehenago egindako ikasketak freskatu eta jotzen hasi zen, igandeetan eta ospakizunetan. Hasiera horretan, Izaskun Gallurraldere laguntza handia izan zuela aipatzen du.
- Duela 23 urtetik hona ari da lan horretan.
- Hobby bat da berarentzat lan hori.
- Leku askotatik deitu diote organoa jotzera joateko, baina ezin du.

Manuel Garmendia Garmendia

- Ugarten jaio zen, 1971/05/26an.
- Zurgintza da bere lanbidea.
- Ikasketak Amezketan egin zituen 14 urte bitartean.
- 16 urterekin hasi zen trikitixa ikasten, Asteasuko Eleuterio Tapiarekin.
- Ezpainenak soinua ere jotzen du, belarriz ikasia.
- Hainbat lekutan ibilia da soinua jotzen, eta horrela jarraitzen du, koadrilan, ospakizunetan, Orendainen askotan, baina inoiz ez du kobratu.
- Osabak esan zion: “Soinua jotzen oso ona edo oso txarra izan behar dik famatua izateko. Hik balio duk horretarako”.

Eider Amundarain Goikoetxea

- Ugarten jaio zen, 1975/03/03an.
- Ikasketak Amezketan, Laskorain ikastolan, Imajina eta soinua Andoainen eta Heziketa Bereziko ikasketak irakasle-eskolan egin zituen.
- Lanbidez irakaslea (Kontsultorea).

▪Musika:

- o Amezketan, Kontxurekin hasi zen solfeoa eta pianoa ikasten.
- o Tolosan, Isidro Larrañagarekin solfeoa eta Mertxe Zeberiorekin pianoa ikasi zituen.
- o Tolosako Musika Eskolan, Edurnerekin ere aritu zen ikasten, eta Andoainen, Maite Oiartzunekin ere bai.
- o **Pianoko 8. maila** egin zuen eta Erdi-mailako titulua lortu zuen. Txistua ere jotzen du.